



Twist

Harkaitz Cano

Euskaraz irakurri ditudan nobelen artean onenetako bat dela esango nuke. Zoragarria iruditu zait. Eta gainera, meritu bikoitza du, nobela luzea delako; eta gauza onak, luzeak badira, birritan onak. Kantitateak inporta du, objektua kalitatearekin batera datorkigunean. Eta liburu honek kalitatea gainezka dauka.

Eleberri adimentsu eta profesionala da; ondo planteatuta eta ondo garatuta dago, eta bukaera pittin bat *pelikuleroa* bada ere, interesgarria eta onargarria ere bada, azken finean gatazka garrantzitsu bat planteatzen baitio protagonista nagusiari (zeinarekin irakurlea erabat identifikatzen den): “hementxe, nire aurrean daukat torturatu ninduen; zer egin behar dut? nola jokatu behar dut...?”. Nolanahi ere, egilea alde aurretik bukaera horren azalpena prestatzen ahalegindu da, eta hori aurretiko ataletan egin du. Beraz, ez da mahukatik ateratako bukaera bat izan, pittin bat “gehiegizkoa” gertatzen bada ere.

Batzuetan, halako digresio batean edo bestean erortzen zela iruditu zait; esaterako, Chejov idazlearen Platonov antzerki-lanaren kasuan (berariaz, nik asko maite dut Chejov). Hala ere, digresio horiek ere intenzionalitatez beteta egoten dira eta gainera interesgarriak ere badira, gustura irakurtzen dira alegia.

Egia esan, nobela hau irakurri eta gero, garbi dago Arkaitz Canoren alde orain dela urte askotxo apustu egin zutenak –bera ia mutiko bat baino ez zenean–, ez zirela tronpatu. Eta une honetan, euskal literaturako idazlerik onenetako baten aurrean gaudela esango nuke. Gainera, modernoa da zentzu jator (*noble*) eta “urbanitas” batean –Woddy Allen edo Ausler modernoak diren zentzu berberan, alegia.

Ia-ia ez zait gatazkarik sortu irakurketa osoan zehar. Irakurri dudan guztia –antza denez– *ondo sartu zait*, eta batez ere, nobelaren garapen osoan –hasieratik bukaerara arte– tentsioari, kalitateari eta logikari eutsi izana zinez goraiatzeko modukoa da.

Sexu-eszenei buruzko deskribapenak ez ditut oso gogoko izan, baina beharbada hori zerbait pertsonala da. Ez dakit ba. Literaturan “irudi erotiko-pornografikoak” erabiltzea badakit modan dagoela, baina nik, oro har, ez dut gustuko nobeletan eszena horiek topatzea (ez baldin bada benetan arrazoi berezi-bereziren batengatik). Pornografia ikusteko, badaukagu Internet (horretarako asmatu zuten, ezta? 😊). Baina liburuetan eszena horien beharrik ez dut. Gainera, inoiz ez dago garbiegi horrekin zer bilatzen den: irakurle merkeen arreta erakartzea ote...?; liburuak esku batekin irakurtzeko ariketak lantzea...?; mainguak amorraraztea...? 😊

Beharbada, gauza batekin ez nago guztiz ados: zergatik ez dugu jendea animatu behar “bere memoriak” idaztera? Hau erdi txantxetan erdi seriotan komentatzen dut, pasadizo hutsa da eta ez du zerikusi handirik nobelarekin (bertan egiten den azal gaineko iruzkintxo batekin baizik). Baina pentsa ezazue une batez, gure herriko jendeak erretiroa hartu eta gero, bizitzea egokitu zaizkien gauzak liburu batean jasotzen saiatzen dela, eta liburu horri nobela itxura-edo (baina ez ezinbestez) ematen diola, adibidez. Bakoitzaren bizitzaren laburbilpen moduko bat izango zen, hau da, oroitzeko gauza garen

momentutik gehien markatu gintuzten edo zirrara handia eragin ziguten oroitzapenak eta bizipenak jasoko lirateke mota horretako liburu “autobiografikoetan” –lekukotasun horiek guztiak galtzeari zinez tamalgarria baiteritzot–. Bestalde, lekukotasun horien artean denetik egon daiteke; esaterako, batzuek ikuspegi historiko bat izan lezakete (gerra zibilean, gerra ostean edo trantsizioan bizi izandako gertaerak, baina ikuspuntu intimista batetik kontatuta); edota, esaterako, pertsona baten bilakaera intimoa azaltzen duten gertaera “txikiak” ere oso interesgarriak izan daitezke (nobela onak – profesionalagoak– idazteko iturri gisa balio lezakete). Horregatik, bizitzaren amaiera alderantz liburu autobiografiko bat –dela nobela itxurapean dela beste formatu batean– idatzi nahi luketen pertsonak ez lituzkete desanimatu beharko literaturako profesionalek. Gainera, pertsona batzuk euren bizitza osoan egoten dira harremanetan literaturarekin, baina irakurle modura gehienbat, idazkuntzara jauzi egiteko aukera handirik izan gabe (badakizue, norbaitek bete egin behar ditu ugaltze-legeak –eta horrek berekin dakarren guztia–, herriek existitzen jarrai dezaten; norbaitek ordaindu behar ditu zergak, kultur eta arte sormenaren aldeko laguntzak egon ahal izan daitezen; eta abar, eta abar...).

Lanpostu ziztrinei dien mesprezuan (beldurrean) antzematen zaio egileari donostiarra dela (ni bezala). Zer egingo diogun ba: donostiarra izatea gaitz sendagaitza da-eta; ez da inoren errua, benetan... ☺

Baliteke Arkaitz Canok harrokeria-puntu bat izatea, baina hala balitz ere, ulergarria izango litzateke, zeren, azken finean, altu –oso altu– egiten du hegan.

Bikaina eleberria. Anima zaitetze irakurtzera, merezi du eta!